

URNIETAKO UDALA

Iragarkia

Urnietako Udalaren Ohiko Osoko Bilkurak, 2013ko uztailaren 23an egindako bileran, hasierako onarpena eman zion drogen mendekotasunen eta beste Mendekotasun psikologiko batzuen tratamendurako Diru-laguntzak arautuko dituen udal-ordenantza.

Espediente hori jendaurrean ikusgai jarri da 30 egun balioduneko epean, eta interesdunek ez dute erreklamaziorik jarri. Beraz, erabaki hori behin betiko onartutzat jotzen da.

Iragarki honen eranskinean argitaratu dira Mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologiko batzuen tratamendurako Diru-laguntzak arautuko dituen udal-ordenantza.

Urnietako Udala, 2013ko urriaren 4a.—Mikel Pagola Tolosa, alkatea.

(1552)

(9284)

Drogen mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologiko batzuen tratamendurako Diru-laguntzen araudia.

1.- Xedea.

Araudi honen xedea da Gipuzkoako zentro publiko edo itunpekoetan tratamendu-programaren bat egiten ari diren pertsonen gastuak partzialki ordaintzeko Urnietako Udalak Gizarte Zerbitzuen Sailaren bidez emango dituen diru-laguntzak arautzea. Salbuespen gisa, aldeko txosten teknikoa izanez gero, EAEko beste zentzoren batean dabilzan pertsonen eskabideak ere onartuko dira, betiere errehabilitazioa arrazoi hauetako batengatik egiten ari badira:

— Droga-mendekotasuna.

— Beste era bateko mendekotasun psikologikoak (hala nola ludopatía, teknologia berriekiko mendekotasuna eta abar).

— Arriskuan dauden 14 eta 18 urte bitarteko nerabeak.

2. Finantzaketa.

Araudi hau betetzeko, finantzaketa 1 0600 480 313 30 01 1913 zenbakiko partidaren kargura egingo da, «drogen mendekotasunen eta beste mendekotasun psikologikoen tratamendurako diru-laguntzak» kontzeptuaren barruan.

*3. Laguntzen edukia.**3.1. Diruz lagungarri diren gastuak:*

Diru-laguntzak emango dira adierazitako zentroetako batera joateko garraio-gastuak eta tratamenduaren eta/edo komunitate terapeutiko bateko egonaldiaren gastuak ordaintzeko.

Hileko kopuru hauek emango dira gehienez:

Garraio-gasturako: 50,00 €.

Komunitate terapeutikoetako egonaldi-gastuetarako: 100,00 €.

3.2. Betekizunak.

Kasu guztietan, tratamenduak laguntza eskatu baino bi hilabete lehenago hasia beharko du izan, eta laguntzak tratamendua hasi den egunetik aurrerako eragina izango du.

AYUNTAMIENTO DE URNIETA

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento de Urnieta, en sesión ordinaria celebrada el 23 de julio de 2013, aprobó inicialmente el Reglamento regulador de las ayudas económicas para tratamiento de drogodependencias y otras adicciones psicológicas.

Habiéndose sometido dicho expediente al trámite de exposición pública por el plazo de 30 días hábiles y no habiéndose deducido por parte de los interesados reclamación alguna, se tiene por adoptado definitivamente el citado acuerdo.

Se publica como Anexo a este anuncio el Reglamento regulador de las ayudas económicas para tratamiento de drogodependencias y otras adicciones psicológicas.

Urnietako Udala, 4 de octubre de 2013.—El alcalde, Mikel Pagola Tolosa.

(1552)

(9284)

Reglamento regulador de las ayudas económicas para tratamiento de drogodependencias y otras adicciones psicológicas.

1. Objeto.

El objeto de la presente normativa es la regulación de las ayudas que el Ayuntamiento de Urnieta a través del Departamento de Servicios Sociales otorgará para subvencionar parcialmente los gastos a las personas que se encuentren realizando algún programa de tratamiento en centros públicos o concertados de Gipuzkoa. Excepcionalmente y con informe técnico favorable se aceptarán solicitudes de personas cuya rehabilitación se esté desarrollando en algún otro centro de la CAPV, por:

— Problema de drogodependencias.

— Adicciones psicológicas de otro tipo (como ludopatía, dependencia a nuevas tecnologías, etc.).

— Situación de riesgo de adolescentes entre 14 y 18 años.

2. Financiación.

A los efectos del cumplimiento del objeto de la presente Normativa, la financiación se efectuará con cargo a la partida n.º 1 0600 480 313 30 01 1913, concepto Ayuda económica para el tratamiento de drogodependencias y otras adicciones psicológicas.

*3. Contenido de las ayudas.**3.1. Gastos subvencionables:*

Las ayudas se destinarán a cubrir los gastos de transporte derivados de la asistencia a alguno de los centros señalados y gastos derivados del tratamiento y/o su permanencia en una comunidad terapéutica.

Siendo la cantidad máxima mensual que se podrá conceder:

Para gasto de transporte: 50,00 €.

Para gastos de permanencia en comunidad terapéutica: 100,00 €.

3.2. Requisitos.

En todos los casos se ha de haber comenzado el tratamiento con al menos 2 meses de antelación a la fecha de solicitud de la ayuda y la concesión tendrá carácter retroactivo de la fecha de inicio del tratamiento.

Garraio-gastutzat hartuko dira Urnietako udalerritik tratamendu-zentroraino egiten diren bidaiak, izan garraio publikoan zein norberaren ibilgailuan. Dena dela, laguntza emateko, kontuan hartuko da hilean zenbat bidaiak egin behar diren eta horretarako zein garraio mota erabiltzen den, publikoa edo pribatua. Irizpide hauek aplikatuko dira:

Garraio publikorako: Txartelaren kostua.

Norberaren ibilgailurako: 0,25 € / km.

Kasu guztietan, erreferentziako gizarte-langileak txosten sozial bat egingo du, eta txosten horretan bere proposamena zein den adieraziko du. Ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du erabakia.

Diru-laguntza, gehienez ere, urtebeterako emango da.

— Beste hiru urtez luzatu ahalko da 4.a) eta 4.b) puntuetan jasotzen diren kasuetarako.

— Beste urte batez luzatu ahalko da 4.c) puntuan jasotzen diren kasuetarako.

4. *Onuradunak.*

4.a. Urnietako udalerrian erroldaturik dagoen eta tratamendua EAeko zentro publiko edo itunpeko batean hasi duen edozein herritar izan ahalko da laguntza hauen onuradun.

4.b. Era berean, laguntza hauen onuradun izango dira eragindako pertsonari jarraipena egiten dioten laguntzaileak (fami-liakoak edo lagunak), betiere programak jarraipena egitea eskatzen badu.

4.c. Onuradun izango dira, orobat, eragindako pertsonaren fami-liakoak, kideak eta lagunak, betiere Urnietako bizi-lagunak badira eta eragindako pertsonak tratamendua hasi ez duela eta auto-laguntzako taldeetara joaten badira, mendeko pertsonaren egoera hobeto ulertzeko modu gisa eta tratamendua egin dezan motibatuzeko eta mendeko pertsonarekiko bizikidetzan sortzen diren egoerak bideratzeko tresnak eskuratzeko modu gisa.

5. *Diru-laguntzaren muga edo gehieneko zenbatekoa.*

1. Emandako laguntzak ezingo dira izan araudi honetan ezarritako gehieneko zenbatekoa baino handiagoak eta ezingo dute kostu erreala ere gainditu.

2. Zenbateko diru-laguntza emango den zehazteko, I. Eranskineko taulan jasotakoa hartuko da oinarritzat.

3. Edonola ere, aurrekontua erabilgarri egotea ezinbesteko baldintza izango da diru-laguntzak emateko.

6. *Onuradunaren betebeharrak.*

Tratamenduan dauden pertsonen eta senitartekoen egoeran aldaketarik bada eta aldaketa horrek araudi honen xede diren diru-laguntzekin zerikusia badu (tratamendua amaitzea edo uztea), Udaleko Gizarte Zerbitzuei egoera hori jakinarazi eta egiaztatuta beharko zaie, aldaketa gertatu denetik 30 egun igaro baino lehen.

7. *Aurkeztu behar diren agiriak.*

Araudi honetan arautzen diren diru-laguntzak jaso nahi dituztenek eskaera bat bete eta aurkeztu beharko dute udalerean, xede horretarako emango den inprimakiaren bidez. Horrekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

Eskabide-orria, ereduari jarraiki egina.

Se consideran gastos de transporte tanto los realizados en transporte público como en vehículo propio desde el municipio de Urnieta hasta el centro de tratamiento. Si bien, a efectos de concesión de las ayudas se tendrán en cuenta el número de viajes mensuales que ha de realizar y el tipo de transporte que utilice para ello, si es público ó privado. Los criterios a aplicar serán los siguientes:

Para transporte público: El coste del billete correspondiente.

Para vehículo propio: 0,25 € km.

En todos los casos la trabajadora social de referencia emitirá un informe social donde explicita su propuesta correspondiente, y será la Junta Local de gobierno la que decida al respecto.

La subvención a otorgar, el plazo máximo será de un año.

— Prorrogable a 3 años para los casos recogidos en el punto 4.a) y 4.b).

— 1 año para los casos recogidos en el punto 4.c).

4. *Personas beneficiarias.*

4.a. Podrán ser beneficiarios de estas ayudas cualquier vecino o vecina que esté empadronada en Urnieta y que haya iniciado el tratamiento en centros públicos o concertados de la CAPV.

4.b. Se beneficiarán de las ayudas del mismo modo las personas acompañantes (familiar o amigo/a) que realice el seguimiento de la persona afectada, siempre que el programa lo exija.

4.c. Se beneficiarán también familiares, compañeros, amigos de la persona afectada, vecinos de Urnieta, que sin haber comenzado ésta el tratamiento, acudan a los grupos de autoayuda, como forma de entender mejor la situación de la persona dependiente y de adquirir herramientas para motivar al mismo hacia el tratamiento y manejo de las situaciones que se crean en la convivencia con una persona dependiente.

5. *Límite o cuantía máxima de la subvención.*

1. Las ayudas concedidas no podrán superar las cuantías máximas establecidas en el presente reglamento ni exceder del coste real.

2. La cuantía de la subvención a conceder se establece según se indica en la tabla del Anexo I.

3. En cualquier caso, la disponibilidad presupuestaria será condición para el otorgamiento de las correspondientes ayudas.

6. *Obligaciones de la persona beneficiaria.*

Las modificaciones que puedan producirse en la situación de las personas en tratamiento y en las personas familiares, que puedan tener relación con las ayudas objeto de la presente normativa (terminar el tratamiento o dejarlo), deberán ser comunicadas y debidamente acreditadas en los servicios sociales municipales en el plazo máximo de 30 días desde que se haya producido.

7. *Documentos a presentar.*

Las personas que estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa deberán cumplimentar y presentar en el Ayuntamiento una solicitud en el impreso que se les facilitará a tal efecto, adjuntando a la misma la siguiente documentación:

Solicitud según modelo.

- a) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionala.
- b) Bizikidetzaz-ziurtagiria.
- c) Tratamendu-zentroak egindako ziurtagiria, eskatzailea tratamenduan gutxienez bi hilabetez egon dela dioena eta laguntzaileak behar izan duen edo ez zehazten duena.
- d) Diru-sarreraren egiaztapena.
- e) Zinpeko adierazpena, hala badagokio beste erakunde batzuen diru-laguntzak jaso direla edo beste erakunde batzuei diru-laguntzak eskatu zaizkiela dioena.
- f) Zinpeko adierazpena, bidezkoa bada, beste entitate publiko edo pribatu batzuei xede bererako diru-laguntzarik ez zaiela eskatu dioena.
- g) Diru-laguntza ordaintzeko kontu korrontea.
- h) Egokitzen jotzen den beste edozein agiri.

8. *Aurkezteko epea.*

Eskabideak urte osoan zehar aurkeztu ahalko dira.

Eskabidearekin batera arauzko dokumentuak aurkezten ez badira, 10 eguneko epea emango zaie eskatzaileei eskabidea zuzentzeko. Hala egiten ez badute, beren eskaeretan atzera egin dutela joko da, ondorio horretarako ebazpena eman ondoren.

9. *Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko prozedura.*

Diru-laguntza honi lotutako eskabideak aztertu ondoren, Saileko teknikariek zenbatekoaren proposamena egingo diote Tokiko Gobernu Batzarrari. Zenbateko hori ez da inola ere izango araudi honetan adierazitako partidaren ezarri den gututziko zenbatekoa baino handiagoa.

Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea hilabeteak izango da gehienez, eskabidea aurkezten den egunetik aurrera. Epe hori amaituta ebazpena jakinarazi ez bada, diru-laguntzaren eskaera ukatu egin dela ulertuko da, isiltasun administratibo bidez.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da, bi hilabete epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Nolanahi ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, hilabete epean, ebazpena eman duen organoan.

10. *Justifikatzeko modua.*

Edonola ere, diru-laguntza onartu ondoren eta ordaindu aurretik, onuradunak tratamendu-zentroaren bertaratze ziurtagiria, auto-laguntzako taldearen ziurtagiria edo hileroko tratamenduaren ondoriozko bestelako gastuen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Ziurtagiri horietan, ondoko hauek zehaztu beharko dira: Tratamendura zenbat egunetan joan den, bakarrik edo lagundurik joan den, eta, hala badagokio, aurkeztutako gastuaren kontzeptua.

11. *Ordaintzeko modua eta epea.*

Ordainketa egiteko, aurrez 7. artikuluan zehazten diren ziurtagiriak aurkeztu behar dira, hilean behin gutxienez (hilabetea amaitu ondoren).

Diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzailearen kontuan edo tratamendura laguntzen dion senitartekoaren edo lagunaren kontuan ordainduko da.

- a) Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante.
- b) Certificado de convivencia.
- c) Justificante expedido por el centro de tratamiento, donde se notifique haber estado como mínimo 2 meses en tratamiento y la necesidad o no de un acompañante.
- d) Acreditación de ingresos económicos.
- e) Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otras subvenciones (o solicitud de subvenciones) concedidas (o formuladas) por o ante otras instituciones.
- f) Declaración jurada en la que se haga constar, si procede, la no solicitud de subvenciones a otras entidades públicas o privadas con el mismo fin.
- g) Número de cuenta donde se desea ingresar la ayuda.
- h) Cualquier otra documentación que se considere oportuno.

8. *Plazo de presentación.*

Se podrán presentar solicitudes durante todo el año.

En el caso de que la solicitud no se acompañara de los documentos preceptivos se concederá el plazo de 10 días a los solicitantes, a los efectos de que subsanen dicha solicitud: Si así no lo hicieran, se tendrán por desistidos de sus peticiones, previa resolución dictada al efecto.

9. *Procedimiento para la resolución de la ayuda solicitada.*

Estudiadas las solicitudes sujetas a esta subvención, las técnicos del Departamento elevarán la propuesta de cuantía a la Junta de Gobierno Local que en ningún caso superará la cuantía total otorgada a la partida reflejada en la presente normativa.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de un mes desde la fecha de la solicitud. En caso de que finalizara dicho plazo sin la notificación de la resolución, se entenderá por silencio administrativo que la solicitud de subvención ha sido denegada.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa, contra la cual podrá interponerse un recurso contencioso-administrativo durante el plazo de dos meses ante la correspondiente sala de lo contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. No obstante, previa a la presentación del citado recurso contencioso administrativo, podrá interponerse en el plazo de un mes un recurso de reposición ante el órgano que dictó la resolución.

10. *Forma de justificación.*

Aprobada la ayuda y previo al abono de la misma, en cualquier caso, las personas beneficiarias deberán presentar los justificantes de asistencia expedidos por el centro de tratamiento, grupo de autoayuda u otros gastos derivados del tratamiento correspondientes a cada mes. En el mismo deberá constar además los días que ha asistido al tratamiento, si lo ha hecho sólo o con acompañante o en su caso concepto del gasto que se presenta.

11. *Forma y plazo de pago.*

El abono se efectuará previa presentación de la documentación justificativa prevista en el artículo 7 como mínimo con carácter mensual (mes vencido).

El pago de la cantidad se ingresará en la cuenta de la persona solicitante o en la cuenta del familiar o amigo que le acompañe al tratamiento.

12. Eskabide berriak aurkeztea.

Tratamendua bertan behera utziz gero eta hiru hilabete igaro ondoren tratamendua berriro hasiz gero, beste eskabide bat aurkeztu beharko da.

Beste eskabide bat aurkeztu beharko da, orobat, onuradunak tratamendua amaitu ondoren beste tratamendu bat hasten badu berriz mendekotasunean erori delako.

Auto-laguntzako taldeetara joateko diru-laguntzen onuradunek taldeetara joateari utzi badiote, ezingo dute eskabide berririk aurkeztu, joateari uzteko arrazoia justifikaturik egon ezean.

13. Laguntzaren aldiberekotasuna.

Araudi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste entitate publiko edo pribatuetatik xede bere-rako lor daitezkeen beste diru-laguntza edo laguntzekin, baina inola ere ezingo da gainditu tratamendu-gastuaren guztizko kostua.

Horri dagokionez, guztizko kostua gainditu dela ulertuko da jasotako laguntzek, denak batera hartuta, tratamenduari dagokion zenbatekoa gainditzen badute.

Emandako diru-laguntzek guztizko kostua gainditzen badute, soberako laguntza itzuli egin beharko zaio Udalari.

14. Klausula gehigarria.

Oinarri hauetan berariaz arautzen ez diren kasuetarako, Diru-laguntzen Udal Ordenantza eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta horrekin bat datozen gainerako lege-xedapenak aplikatuko dira.

Azken Xedapena.

Lehen. Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN bere osotasunean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioek Udalak bidali behar dien udal erabakiaren jakinarazpena jaso eta 15 egun igaro direnean (Tokiko Erregimenaren Lege Arautzaileko 70.2 eta 65.2 artikulua).

Bigarrena. Jende aurreko izapidea eta entzunaldia argitaratzea, kexa eta iradokizunak aurkezteko gutxieneko hogeita hamar eguneko epean interesatutako pertsonentzat.

Hirugarrena. Inongo kexarik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, ordurarte behin- behineko erabakia behin betirako ulertuko da, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan arabera, Erregimen Lokalaren Oinarri Erregulatuileari dagokiona, atalaren argitalpen osoari ekinez.

I. ERANSKINA

Dagokion zentrora joateko garraio-gastuen kostua eta/edo tratamendu edo errehabilitazio zentro bateko egonaldiaren kostua diruz laguntzeko orduan, kontuan hartuko dira bizikidetzak unitatearen diru-sarrerak (Ikus taula).

12. Presentación de nuevas solicitudes.

Deberá presentarse nueva solicitud tras un abandono del tratamiento si han transcurrido tres meses desde el abandono y la puesta en marcha del tratamiento.

También deberá presentarse nueva solicitud si tras finalizar el tratamiento, debido a una recaída, vuelve a realizar otro tratamiento.

Los beneficiarios de ayudas para acudir a grupos de autoayuda, en caso de haber interrumpido la asistencia, salvo que ésta esté justificada, no podrán presentar nuevas solicitudes.

13. Concurrencia de la ayuda.

Las ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin pueda obtenerse de cualquier otra entidad pública o privada sin que en ningún caso se pueda superar el coste total de los gastos del tratamiento.

A este respecto se entenderá que se supera el coste total cuando las ayudas recibidas, en su conjunto, excedan de la cantidad correspondiente al tratamiento.

En el caso de que las subvenciones otorgadas superen el coste total, el exceso de la ayuda deberá ser reintegrado al Ayuntamiento.

14. Cláusula adicional.

Todo lo no recogido expresamente en las presentes bases regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.

Disposición Final.

Primero. La Ordenanza entrará en vigor, una vez publicado el texto íntegro en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, cuando han transcurrido 15 días contados desde la recepción por la Administración del Estado y la de las Comunidades Autónomas de la comunicación del acuerdo municipal que debe remitirles el Ayuntamiento (arts.70.2 y 65.2 LRBL).

Segunda. Publicar el trámite y la audiencia públicas, para que las personas interesadas interpongan sus quejas y sugerencias en un plazo mínimo de treinta días.

Tercera. Si no se presentara ninguna queja o reclamación, la resolución hasta entonces temporal, pasará a ser definitiva, según el artículo 70.2 de la 7/1985 del 2 de abril, referente a la Base Reguladora del Régimen Local, y se procederá a su total publicación.

ANEXO I

Se subvencionará el coste de los gastos de transporte derivados de la asistencia al centro correspondiente y/o su permanencia en centro de tratamiento ó rehabilitación., teniendo en cuenta los ingresos económicos de la unidad de convivencia. (Ver tabla).

| <i>IPREM (2013)</i> | <i>Familiako diru sarrerak</i> | <i>DIRU-LAGUNTZAREN EHUNEKOA (terapiaren hileko kostuari aplikatua)</i> |
|---------------------|--------------------------------|---|
| <240% | < 15336,28 € | %100 |
| >240% | > 15336,29 € | %60 |

(IPREM 2013: 532,51 € /6.390,12 € urteko).

| <i>IPREM (2013)</i> | <i>Ingresos familiares</i> | <i>TANTO POR CIENTO DE LA AYUDA (aplicado al coste mensual de la terapia)</i> |
|---------------------|----------------------------|---|
| <240% | < 15336,28 € | 100% |
| >240% | > 15336,29 € | 60% |

(IPREM 2013: 532,51 € /6.390,12 € año.)